

Soldata eta lan baldintza duinak eskatu ditugu EHuko irakasle eta ikertzaileentzat

✖ Soldata eta lan-baldintza duinak irakasle eta ikertzaile guztiontzat, horixe aldarrikatu dugu gaur LAB eta STEILAS sindikatutako ordezkariok Lakuako atarian, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren eta Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluaren bilera aurretik.

“Jaurlaritza, UPV/EHU itotzen ari zara” eta “Irakasle eta ikertzaileen soldata eta lan baldintzekin iruzur eta diskriminazio gehiagorik ez!!” lelopean, gaurko elkarretaratzearekin salatu nahi izan dugu Jaurlaritzaren jarrera unibertsitate publikoko langileriarekin, eta zehazki, irakasle eta ikertzaileekin:

EAEko aurrekontuetan, Jaurlaritzak ez ditu unibertsitate-plangintzan aurreikusitako inbertsioak egiteko diru-sarrerak bermatu.

Abenduan, UPV/EHUren Gobernu Kontseiluaren eta Gizarte Kontseiluaren erabakien kontra eta Unibasq-en konplizitatearekin, 279 irakasleren C osagarriak ordaintzeko beharrezkoa zen ebazpena geldiarazi zuen, ordainketa urtebetez atzeratuz. Osagarri horiek antzinasunarekin lotuta daude eta hainbat irakasleren soldata irakaskuntza ez unibertsitariokoekin parekatzeko eta duintzeko bide bakarra da, azken urteotako izozketaren ondorioz.

Gogoratu, 2011, 2012, 2013 eta 2014 urteetan Jaurlaritzak ez zuela osagarrien deialdirik atera. Horrek eta soldata-murrizketek eragin handia izan zuten irakasle eta ikertzaileen soldatetan eta erosahalmenean, bereziki gazteen eta sartu berriengan. Ez da ahaztu behar Unibertsitatea dela, Euskal Hezkuntza sistema publikoaren baitan, irakasle berriei soldata maila baxuena eskaintzen diena

Behin-behineko irakasleek aitortuta duten bosturtekoak ordain daitezen bidea emango lukeen 41/2008 dekretuaren aldaketa eta aurrekontu-partida ez ditu bideratu, hainbat epaik jarrera hau diskriminatzailea dela azaldu badute ere.

Antzera, aipatu dekretua aldatu behar da behin-behineko irakasleei seiurtekoak ordaintzeko, sententzia batek berriki agindu duena bete ahal izateko.